



AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK

Herritarrak,

Udalak urtea hasi aurretik zer gastatuko duen eta zein dirusarrera izango dituen aurrikusi behar izaten du urtero. Aurrekontu hauetan zehazten dira urte horretan egin beharreko proiektuak, gastuak, potentziatu beharreko zerbitzuak, etab.

Beraz, jakinarazten dizuegu 2009ko aurrekontuak egiten ari garela, eta zuen partehartzea inportantea iruditzen zaigula. Bertan, zuen iritzi eta proposamenak jaso nahi ditugu datorren urteari begira. Guk buruan proiektu asko ditugu hurrengo urteetan egiteko, eta zuekin premiak zein diren ikus ditzakegu.

NOIZ: Azaroaren 6an, osteguna, iluntzeko 8tan.

NON: Kultur Aretoan.

GAIA: 2009ko udal aurrekontuak.

AZAROKO PLENOA

Jakinarazten zaizue, asteartean, **2008ko azaroaren 11ean**, Plenoa egingo dugula Adunako udaletxean **iluntzeko 8tan**.

Bertan, honako gai hauek aztertuko ditugu:

- Herriko Plaza peatonalizatzeko obren adjudikazioa
- Hitzarmenak eta erosketak: Pili Kortajarena-Asier Aizpuruarekin, etab.
- Euskal Fondoko Salvadorreko proiektuei dirulaguntza.
- Erregu-galderak



2008KO KULTUR ASTEA

Aurtengo kultur Astea Kultur Aretoaren inaugurazioarekin hasiko da azaroaren 16an, eta bukatuko da Txerri Bodarekin azaroaren 23an. Oraingoan ere gauza interesgarriak daude, eta jendeari partehartzera gonbidatu nahi dizuegu.

Programa laister banatuko zaizue, baina honako honako ohar hauek egin nahi dizkizuegu:

OHARRAK:

KANTU JIRA.

Larunbatean, azaroaren 22an, goizetik kantutoki jira herrikoia egingo da herrigunearen inguruan.

Ondorenean, eguerdiko 14:00tan **15 euroko bazkaria** egongo da Uztartza Aterpetxean. Bertan jan nahi izanez gero, **azaroaren 17rako** jakinarazi behar da Uztartzan bertan.

Kantutoki jira irekia dago herritarrei, eta bertan parte hartu nahi baduzue, aurretik egingo den **entsaioa azaldu**:

ENTSAIOA: azaroaren 17an, iluntzeko 8tan izango da Elordi Plazako lokalean.

TXERRI BODA

Igandean, azaroaren 23an, goizetik txerri-boda egingo da.

Gero, jarraian, **eguerdiko ordubitan bazkaria** egongo da Uztartza Aterpetxean. Bertan jan nahi izanez gero, **azaroaren 17rako** tiketak hartu behar dira Uztartzan. Tiket bakoitzak **15 euro** balio ditu.